

**UDALBATZARRAK 2011ko OTSAILAREN 22an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN
AKTA**

2011ko otsailaren 22an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Roteta Elola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Roteta Elola

ZINEGOTZIAK :

Aitor Eizmendi Garro
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Juan Ignacio Umerez Urrezola
Jose Ramon Hernandez Cristóbal
Ainara Zurutuza Ilundain

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1.Aurreko bilkuretako akten onespena.

- 2010ko abenduaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta.

2.Alkatetza ebazpenen berri ematea.

3.Fakturak eta ordainketak.

4.Zumitzeta-berri etxeko terrazako baranda txukundu eta pintatu. A.B.A.

5.VII. Aiztondo klasikoaren kitapenaren berri eman, hala badagokio.

6.VIII. Aiztondo klasikoari 2011ko ekarpena burutzea, hala badagokio.

7.2011 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.

8.Beste batzuk.

9.Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA
AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2011ko urtarrilaren 25eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek

aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpena eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

01/2011 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 26koa, Alkizako udaleko 2010 urteko bigarren go seihiabeteko uraren tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

02/2011 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 30ekoa, Faktura txikien zerrenda onartu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

03/2011 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 31koa, F.J.A. Jaunari Alkizako liburutegian harrera lanak eta liburuen katalogazioa egiteko lan kontratua egitea 2011ko urtarrilaren 31ko datarekin, ebazten duena.

04/2011 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 8koa, Udal honetan hutsik dagoen Idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko egingo den lehiaketa arrunta eraenduko dituzten berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- IBERDROLA	607,98€
- IBERDROLA	171,74€
- IBERDROLA	126,78€
- IBERDROLA	247,98€
- IBERDROLA	564,36€
- IBERDROLA	491,73€
- IBERDROLA	409,48€
- CARPINTERIA ATARI	564,39€
-EDUARDO HERRANZ	350,00€
-ZITU	231,50€
-ZITU	1.288,00€
-ARGIA	138,00€
-ARGITU ASESORES	148,74€
-IZADI LABORATEGIA	141,60€
-IZFE	1.697,80€
-BIDATEK	238,36€
-LINEA 3000	207,16€

-COMERCIAL SAN BARTOLOME

194,00€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **7.819,60** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ZUMITZETA-BERRI ETXEKO TERRAZAKO BARANDA TXUKUNDU ETA PINTATU. A.B.A.

Ikusirik A.B.A. Jaunak eginiko eskaera, non Zumitzeta-berri etxeke terrazako baranda txukundu eta pintatzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.B.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Zumitzeta-berri etxeke terrazako baranda txukundu eta pintatzeko obra baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

VII. AIZTONDO KLASIKOAREN KITAPENAREN BERRI EMAN, HALA BADAGOKIO

Ikusirik VII. Aiztondo Klasikoa 2010, kitapena prestatu dutela. Alkizako Udalak, egindako ekarpena 1.901,06 euro izan zen eta kitapena 1.936,04 euro izan dira, beraz, 34,98 eurotako defizita egon da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- VII. Aiztondo klasikoa 2010eko kitapena onestea.

SEIGARREN PUNTUA

VIII.AIZTONDO KLASIKOARI 2011 KO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Aiztondo Klasikaren Batzordetik igorritako idatzia, non dioen 2011ko martxoaren 13an jokatu den VIII. Aiztondo Klasikoaren gastuei aurre egiteko 2011 urterako Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 1.977,11 eurotan finkatzen duen.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Aiztondo Klasikaren Batzordeari 1.977,11 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2011 ekitaldirako Udal Aurrekontuan gastu honi aurre egiteko partida nahikoa aurreikusteko konpromezua hartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2011 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA.

Ikusirik 2011 urterako udal zergen eta tasen hobariak onestu direla, ondasun higiezin gainera zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta ditzuen ondasun higiezin kasuetan.

Ikusirik Alkizako Udalak ,2011ko urtarrilaren 18an deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2011ko otsailaren 18a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean bi hobari eskaera egin direla, famili ugariak izateagatik.

Ikusirik, bi eskaera hauek “ Hobaria jasotzeko eskubidea galdu egingo da, familia unitateko kideren bat ohiko bizilekuaz gain beste ondasun higiezin baten jabe denean” baldintza ez dutela betetzen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.O.G. Jaunak egin duen 2011 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera ukatzea, eskatutako baldintzak ez dituelako betetzen.

BIGARRENA: A.B.D. Andreak egin duen 2011 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera ukatzea, eskatutako baldintzak ez dituelako betetzen.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

**8.1.SALETXE BASERRIA ERABERRITZEAN EGINDAKO OBREN
LEGEZTATZE ESKAERA, A.G.**

Ikusirik A.G. Jaunak eginiko eskaera, non Saletxe baserria eraberritzean, lizentzirik gabe eginiko obrak legeztatzeke Luis Pablo Urquizu Iturralte arkitektoak eginiko txostena aurkezten duen, aipaturiko obrak legeztatzeke.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Ignacio Diaz Goena arkitektoak 2011ko otsailaren 16an eginiko txostenean dioena:

“INFORME SOBRE ESCRITO PRESENTADO SOBRE LAS OBRAS DEL CASERIO SALETXE

1.INTRODUCCION

Requiere informe, sobre escrito presentado por Don A.G. sobre las obras de rehabilitación del caserío Saletxe, el Ayuntamiento de Alkiza.

2.ANTECEDENTES

Con fecha 27 de enero de 2011, el Arquitecto que suscribe, emitió informe sobre las obras que se estaban ejecutando en el caserío Saletxe. Este informe ha sido trasladado por el Ayuntamiento al promotor acompañado por un escrito.

Como consecuencia al escrito remitido por el Ayuntamiento el promotor ha presentado una pequeña memoria redactada por el Arquitecto director de las obras.

3.CONSIDERACIONES

En las conclusiones del informe, de fecha 27 de enero de 2011, que se ha dado traslado al promotor, en el apartado de conclusiones se decía, entre otras cosas, lo siguiente:

El caserío se está construyendo en el emplazamiento que figura en el proyecto sobre el que se concedió la licencia de obras.

El espacio resultante en la parte sur, que en el proyecto era un relleno, no está amparado por la licencia y se deberá solicitar su legalización. Este espacio no es aprovechable.

Se deberán paralizar las obras comprendidas entre el edificio y los postes levantados en sustitución del muro.

No existe normativa que impida la construcción de muros en suelo no urbanizable en la categoría de suelo no urbanizable sin uso definido o en la normativa vinculada a caseríos en explotación.

La construcción de un muro en el límite entre propiedades, como en este caso, no está regida por legislación urbanística sino que está regulada por la jurisdicción civil.

La memoria presentada, antes descrita, es insuficiente para legalizar las obras.

4.CONCLUSIONES

Se deberá de presentar la solicitud de legalización de las obras acompañada de la documentación técnica, anexa al proyecto, compuesta por: memoria descriptiva y justificativa, planos de planta sección y alzados, acotados y suficientemente definidos y presupuesto correspondiente.

Tal y como figura en el informe redactado a la solicitud de la licencia de obra, de 20 de abril de 2010, los muros de contención deberán disponer de una terminación de mampostería. En este caso, el cerramiento correspondiente, que sustituye al muro de contención, deberá disponer del acabado citado.”

Gaia azterturik, bertaratuak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- A.G. Jaunak Saletxe baserria eraberritzean egindako obrak legeztatzeko aurkezturiko txostena ontzat ez hartzea.

BIGARRENGOA.-A.G. Jaunari jakinarazi Saletxe baserria eraberritzean egindako obrak legeztatzeko, Ignacio Diaz Goena Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen dokumentuak aurkeztu beharko dituela.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri A.G. Jaunari ematea.

8.2.SALETXE BASERRIA ERABERRITZEAN EGINIKO OBRAK DIRELA ETA AURKEZTURIKO ESKAERA, I.S, L.S., I.S. Eta P.S.

Ikusirik I.S, L.S., I.S. Eta P.S. Jaun/andreak aurkezturiko eskaera, non ondorengoa dioen:

“Jakinez, Saletxe baserriko jabeak etxeari egiten ari diren eranskina, hau da, pareta, Agina Baserriko jabeen terrenoetan sartuta lanean ari direla inongo baimenik eskatu gabe,

ESKATZEN DUTE: Herrian dauden arauak errespeta ditzala.

Aurrerantzean ere inongo obrarik egin behar badu, besteen terrenotik egin beharko duela.

Eskatzen du edozein obra besteen terrenotik egin behar badu ez zaiola inori eman behar.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.S., L.S., I.S. Eta P.S. Jaun/andreei jakinaraztea, Alkizako Udalak ematen dituen obra baimenak ondorengo klausula izaten dutela: “ **Obra baimena ematen da hirugarrenen eskubideen kalterik gabe eta jabetza eskubidearen kalterik gabe.** “

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

8.3.GARMENDIKO BASOAN DAUDEN KAROBIAK KONPONTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, UR MARA MUSEOA .

Ikusirik Ur Mara museoren izenean K.J. Jaunak eginiko eskaera, non, Alkizako Garmendiko basoan dauden karobiak konpontzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, bertaratuak, Koldobika Jauregi zinegotziaren abstentzioarekin 30/1992 Legeak 28. artikulua xedatutako kasu batean aurkitzen delako, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Ur Mara museoak eginiko eskaera onestu, hau da, Garmendiko basoan dauden karobiak konpontzeko obra baimena ematea.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapenetik salbu uztea, honen trukean Alkizako herritarrak (bertan erroldatutakoak) aukera izango dute Ur Mara museoa dohainik ikusteko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.